Aita Lafitte
Petit Seminaire
UZTARITZ

Iñaki Mozos
Virgen del Carmen-5-5°
Donostia- Uztaila-7

Agur jaun hori:

Eskutitz honen hasiera osatzeko duda-mudatan ibili naiz eta ezagutzen ez nauzunez gero nire buruaren aurkezpen moduko bat egitea egoki iruditu zait.

Bergaran jaioa eta Madrilen gaztelaniazko literatura ikasia naiz eta orain Donostian nago euskarazko irakasle bezala lan eginaz. Aspaldian euskal antzerti zaharraz interesaturik, Madrilen nengoela hasi nintzen gai hori aztertzen eta lehenengo urtean —teatro moeta horrek pairatu duen jakintsuen aldetiko baztertzea zela eta— Phantzart izeneko trajikomedia argitaratzera ausartu nintzen. Oso edizio txikia izan zen eta ez zen tamalez nik nahi bezain ongi atera. Ez dakit ezagutuko zenuen, baina ez da hori nire oraingo eskutitz honen gakoa.

Eusko Ikaskuntza elkarteari, euskaraz Ihauterietako literaturaz testu kopuru nabarmen bat zegoela ikusirik, lan batez arduratzea proposatu nion eta honek, proposamena onartu ezezik dirulaguntza bat eman zidan, hori bai, urte baten buruan lana bukatuta izatea agintzen niela. Lanaren izenburua "Ihauteria Euskal Literaturan" izango litzateke. Bertan, testuak, irazkinak eta abar sartuko nituzke. Oraingoz testuen grafiaz erabaki sendorik hartu ez badut ere, Phantzart-en argitarapen hura grafia modernoz eginik izan arren, hobekiago de-

ritrof grafia zaharrean ateratzeari testuaren fidagarritasuna fikoago gelditzen dela ematen baitu. Dena den oraingoz ez dut erabakitzeko asmorik, zure aholkua gai zehatz hau dela eta pozik eta gustora hartuko banu ere.

Baku's trajikomediaren eskuzkribua makinaz idatzirik dut honez gero Bordeleko Liburutegitik Haritxelhar jaunak bidali zidanez gero, eta oharren prestaketan nago. Eta Hérelle-k zioenez ba^[?] zegoen beste trajikomedia bat "Phantzarten Judizio eta Kondemnazioa" deitzen zena, aspaldian galdutzat joa. Baina Urkizu-k "Argia" aldizkariko 951 zenbakian zure izena aipatuz "prosazko edo hitz-lauzko trajikomedia bat aipatzen du Gure Almanaka-n 1972an agertutikoa. Baionako Erakustokian aztertu nuen eta oso laburra iruditu zitzaidan San Pantzar izenburuko irriamentu hura - 5 orrialde exkax. Hasieran "paper zahar batzuren artean" arkitu zenuela diozu, eta burura datorkidan galdera zera da, argitaratutzkoa ez al da testu luzeago baten zatibat besterik? Gainera, esan al dezakegu hori dela Badé-k lehenengo eta gero Hérelle-k aipatzen duten obra? Baiezkotan, nola izango litzaidake posible horren eskuratzea?

Horiek izango zenituzke lanean jarraitzeko ~~aska~~ askatu behar dudan korapiloari dagozkion zenbait galdera. Gehiago aterako zaizkit eta zure erantzunaz onartzen badizkidazu emango nizuke, agertu ahala, horien berri. Ez dakit ausartegi jokatu dudan zuregana horren zuzenki abiatzean, horrela bada barkamena eskatzeko beharrean nengoke, baina bihoa atera den modura.

Besterik gabe eta zure erantzunaren zai

[signature]